

LOREZAINZAKO PEIEN LAN-POLTSA SORTZEKO PROZESUA ARAUTZEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

LEHENENGO OINARRIA.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da lan-poltsa bat sortzea, hutsik geratzen diren lanpostuak aldi baterako betetzeko, eta aurrez ikusi ezin diren lan-beharrei erantzuteko. Egin beharreko zereginak lorezaintzako peiari dagozkionak izango dira.

BIGARREN OINARRIA.- Izangaien baldintzak

Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetako baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.
- b) Parte hartu ahal izango dute, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideek, betiere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere beren ondorengoek eta beren ezkontidearenek, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, edo adin horretatik gorakoak, baina beren pentzuan bizi direnak.
- c) 18 urte edo gehiago izatea, eta nahitaezko erretiro-adinera iritsi gabe egotea.
- d) Lanpostuaren zereginak betetzea galarazten duen gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea. Dagokionean egiaztatuko da hori, kontratazioaren unean izangaiei egin ahal izango zaien azterketaren bidez.
- e) Diziplinazko espediente baten bitartez Herri Administrazioen baten zerbitzutik baztertuta ez egotea, eta zeregin publikoak egiteko ezgaiturik ez egotea.
- f) Herri Administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko 53/1984 Legean jasotako xedapenen arabera, ezgaitasun edo bateraezintasunaren legezko kausaren batean ez egotea.
- g) Eskola-ziurtagiria edo baliokidea izatea. Hala badagokio, baliokidetasuna izangaiak egiaztatu beharko du, administrazio eskudunak horretarako eginiko ziurtagiriaren bidez.
- h) Lanpostuan hasteko unean Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea.

HIRUGARREN OINARRIA.- ESKABIDEAK ETA IZANGAIEN ONARPENA

a) Izangaiek Behargintzan (Mendibil, 3) aurkeztu beharko dituzte eskabideak, behar bezala beteta, zazpi egun naturaleko epean argitaratzen denetik zenbatzen hasita, hautaketa-probetan onartuak izateko eskatuz. Berariaz adierazi beharko dute eskatutako baldintzak betetzen dituztela eta oinarri hauek kasu guztietan onartzen dituztela.

b) Toki hauetan argitaratuko da: udalaren iragarki-oholean (Elexalde, 1), Behargintzan (Mendibil, 3) eta udalaren web-orrialdean (www.leioa.eu). Halaber, oinarrien argitalpena eskualdean zabalkunde handia daukaten bi egunkaritan iragarriko da.

c) Eskabidearekin batera, Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua, deialdi honetan eskatutako tituluaren fotokopia eta alegatutako merezimenduak eta betekizunak egiaztatzeko agiriak aurkeztuko dira. Merezimenduak eskabideak aurkezteko unean soilik baloratuko dira.

d) Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gero, alkatetzak ebazpena emango du, eta onartutako eta baztertutako izangaiei behin-behineko zerrenda onetsiko du. Merezimenduen atalean lortutako puntuazioa eta baztertzeko kausak adieraziko dira, hala badagokio. Zerrenda hori jendaurrean jarriko da, lehen adierazitako eran.

e) Zazpi egun naturaleko epea emango da, argitalpen horretatik aurrera zenbatzen hasita, erreklamazioetarako eta/edo hutsuneak zuzentzeko, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 71. artikuluan adierazitakoaren arabera. Zuzenketetarako aldia igaro ostean, behin betiko zerrenda onetsiko duen ebazpenean ebatziko dira. Behin betiko zerrenda hori adierazitako eran jarriko da jendaurrean, lehenengo ariketaren data eta orduarekin batera. Erreklamaziorik ez badago, ebazpena behin betiko ebazpen izatera pasatuko da, automatikoki.

LAUGARREN OINARRIA.- EBALUAZIO-BATZORDEA

Ebaluazio-batzordea hauek osatuko dute:

- Batzordeburua: Alkatea edo zinegotzi eskuordea.
- Batzordekideak:
 - Barne araubideko informazio-batzordeko burua, edo batzordekide eskuordea.

- Kontratazioan interesa duen arlo edo zerbitzua mendeko den batzordeko burua.
- Gobernu-taldea osatzen ez duten udal talde politikoetakoren bateko zinegotzia, txandakako izaerarekin.
- Langileen Batzak edo Enpresa Batzordeak izendatutako ordezkari bat.
- Idazkaria: kontratazioan interesa duen arlo edo zerbitzuko langile bat; hitza izango du, baina ez du puntuaziorik emateko eskubiderik izango.

Batzorde horrek honako hauek ebaluatuko ditu: curriculumean alegatutako merezimenduak, zehaztutako zereginekin lotutako titulazio ofizialak, eta lanpostuaren zereginekin lotutako eta frogatutako ezagutzak eta esperientzia.

BOSGAREN OINARRIA.- HAUTAKETA-PROBAK

Izangaiei deialdi bakarra egingo zaie, eta bertaratzen ez direnak baztertuak izango dira. Edozein unetan, Ebaluazio Batzordeak izangaiei jatorrizko agiria edo edozein agiri osagarri aurkezteko eskatu ahal izango die, egiaztapen egokia egiteko beharrezkotzat jotzen baldin bada.

a) Lehiaketa-fasea.

Merezimenduak eskabideak aurkezteko unean soilik baloratuko dira. Horiek eskabideak aurkezteko epearen amaiera-datara arte lortu edo aintzatesi behar izan dira. Zerrenda horrekin batera, dagozkion ziurtagiri edo fotokopia konpultsatuak aurkeztu behar dira. Baloratu ahal izateko, agiri bidez egiaztatuta egon beharko dute. Behar bezala egiaztatuta ez dauden merezimenduak ez dira baloratuko. Horrez gain, alegatutakoa faltsua dela frogatzen bada, hori alegatu dutenak hautaketa-prozesutik baztertuak izango dira.

Lanbide-esperientzia baloratzeko, lan eginiko hilabete osoak baloratuko dira. Esperientzia hori egiaztatzeko, pertsona horren zerbitzuak kontratatu dituen enpresaren agiria behar da eta, agiri horretan, zelako lana egin duen eta zenbat denboraz jardun duen lanean adierazi beharko da.

b) Oposizio-fasea.

Ebaluazio Batzordeak puntuaziorik handiena lortu duten **hamar** pertsoneri deituko die, eta dagokion proba praktikoa egingo da.

Proba honetako gehieneko puntuazioa merezimendu orokorreari esleitu beharreko puntuazioaren % 100ekoa izango da. Era berean, probaren iraupena eta edukia

Ebaluazio Batzordeak erabakiko ditu, proba praktikoa egin baino lehentxeago izandako batzarrean.

c) Lehiaketa-oposizioko azken puntuazioa.

Lehiaketa-oposizioko azken puntuazioa bi faseetan lortutako puntuazioa batuz lortuko da. Berdinketa egonez gero, irizpide hauen arabera ebatziko da, lehentasun-ordenaren arabera:

Enplegu-eskatzaile modura zenbat denbora daraman.

Izangaiaren adina.

SEIGARREN OINARRIA.- LAN-POLTSAREN FUNTZIONAMENDUA

Hautaketa-probak amaitu ostean, Ebaluazio Batzordeak proba horien emaitza jendaurrean jarriko du. Aipatutako argitalpena oinarri hartuta, aldi baterako lan-poltsa eratzea onetsiko da. Lan-poltsa hori hautaketa-prozesua gainditu duten langileek osatuko dute, lortutako puntuazioaren arabera ordenatuta. Lan-poltsa honek balio gabe uzten ditu aurretiaz espezialitate bererako eraturakoak.

Lan-poltsa honen kudeaketa Leioako Udaleko lan-poltsak sortzeari eta horien funtzionamenduari buruzko araudiaren 312/08 Dekretuaren arabera egingo da.

ZAZPIGARREN OINARRIA.- AURKARATZEAK

Interesdunek deialdi honen, bere oinarrien eta horietatik zein Balorazio Batzordearen jardueratik ondorioztatzen diren administrazio-egintzen aurka egin ahal izango dute, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako eran eta kasuetan.

Horixe jakinarazi nahi da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen.

Leioan, 2010eko ekainaren 9ean.
Behin-behineko Alkate-Udalburua

M^a Carmen Urbieta González

1. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

Merezimenduak eskabideak aurkezteko unean **soilik** baloratuko dira.

LANGABEZIA. Langabezia-egoeran egondako seihileko bakoitzeko (etenik gabeko sei hilabete) 0,5 puntu; **3 puntu** gehienez.

Puntuazio hori egiteko, eskatzaileak **Lan Bizitzaren Txosten eguneratua** aurkeztu beharko du lehenengo, eta lan-poltsa hauek prentsan argitaratu diren egunaren aurreko hiru urteak hartuko dira kontuan.

EUSKARA.

Administración ----- Administrazioa	Educación ----- Hezkuntza	Otros ----- Bestelakoak
3.HE	2.HE	EGA
2. HE	1. HE	<i>Hizkuntza Eskola</i> Ofizialeko 4.Maila Gaindituta
1. HE	-----	-----

- 3. HE, 2. HE, EGA, 3,00 puntu.

- 2. HE, 1. HE, HEO 4. MG 1,50 puntu.

- 1. HE,0,75 puntu.

PRESTAKUNTZA. Prestakuntza-ikastaroak, lorezaintza-espezialitatearekin lotutako gaietara buruz: berdeguneak sortu eta mantentzea...

- Deitutako lanpostuarekin lotutako zereginei buruzko prestakuntza-ikastaroak, zentro ofizialek emandakoak, 10 - 50 ordu bitartekoak: 0,10 puntu ikastaroko, gehienez puntu 1.
- Deitutako lanpostuarekin lotutako zereginei buruzko prestakuntza-ikastaroak, zentro ofizialek emandakoak, 50 - 100 ordu bitartekoak: 0,20 puntu ikastaroko, gehienez 2 puntu.

- Deitutako lanpostuarekin lotutako zereginei buruzko prestakuntza-ikastaroak, zentro ofizialek emandakoak, 100 ordu baino gehiagokoak: 0,50 puntu ikastaroko, gehienez 3 puntu.

LAN-ESPERIENTZIA. Lan-esperientzia egiaztatzeko, pertsona horren zerbitzuak kontratatu dituen enpresaren agiria behar da eta, agiri horretan, zelako lana egin duen eta zenbat denboraz jardun duen lanean adierazi beharko da.

- Administrazioan antzeko funtzioak dituzten lanpostuetan eginiko lanagatik, hilabete bakoitzeko 0,20 puntu; 10 puntu gehienez.
- Arlo pribatuan antzeko funtzioak dituzten lanpostuetan eginiko lanagatik, hilabete bakoitzeko 0,10 puntu; 5 puntu gehienez.